

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

152

EBAZPENA, 2021eko abenduaren 2koa, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria, zeinaren bidez formulatzen baita Pasaiako (Gipuzkoa) Poblado, Salinas eta Andonaegi bizitegirako hiri-eremuen leheneratze, birgaitze eta kudeaketan esku hartzeko Hiri Antolamenduko Plan Bereziari buruzko ingurumen-txosten estrategikoa.

AURREKARIAK

2021eko urriaren 1ean, Pasaiako Udalak Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzari eskatu zion Poblado, Salinas eta Andonaegi bizitegirako hiri-eremuen leheneratze, birgaitze eta kudeaketan esku hartzeko Hiri Antolamenduko Plan Bereziari buruzko ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedura abiarazteko, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean xedatutakoaren arabera. Eskabidearekin batera, zenbait dokumentu aurkeztu zituen, hala nola, Planaren zirriborroa eta ingurumen-dokumentu estrategikoa, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 16. eta 29. artikuluetan ezarritako edukiarekin.

21/2013 Legearen 30. artikulua aplikatuta, 2021eko urriaren 26an, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak kontsulta-izapidea egin zien eragindako administrazio publikoei eta interesdunei; jasotako erantzunen emaitzak espedientean bildu dira. Era berean, izapidearen hasieraren berri eman zitzaion Pasaiako Udalari.

Halaber, espedientean jasotako dokumentuak eskuragarri egon ziren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean, interesdun orok ingurumenaren arloan egoztat jotzen zituen oharrak egin ahal izateko.

Legezko erantzun-epea amaitu, eta espedientean jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu da ingurumen-organoak baduela ingurumen-txosten estrategikoa egiteko behar beste judizio-elementu, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 30. artikuluari jarraikiz.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 1. artikuluan ezarritakoaren arabera, ingurumenean ondorio adierazgarriak eragin ditzaketen plan, programa eta proiektuen ingurumen-ebaluazioa arautu behar duten oinarriak ezartzea da helburua; era horretan, ingurumenaren babes-maila handia bermatuko da, garapen jasangarria sustatzeko.

Poblado, Salinas eta Andonaegi bizitegirako hiri-eremuen leheneratze, birgaitze eta kudeaketan esku hartzeko Hiri Antolamenduko Plan Berezia (aurrerantzean, Plana) abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.2 artikulua kasuetan sartzen da; bertan aurreikusten da zein diren ingurumen-organoak egindako ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatutik pasatu behar diren plan eta programak, honako hau zehazteko: planak edo programak ez duela eragin nabarmenik ingurumenean, ingurumen-txosten estrategikoan ezarritakoaren arabera, edo plan edo programen gaineko ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egin beharra, haiek ingurumenerako eragin nabarmenak ekar litzaketelako.

Ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua egiteko prozedura 29. artikulutik 32. artikulura bitartean arautzen da, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen V. eranskinean ezarritako irizpideen arabera.

Aldaketaren ingurumen-ebaluazioaren espedienteko dokumentazio teknikoa eta txostenak aztertu ostean, eta kontuan hartuta ingurumen-dokumentu estrategikoa zuzena eta indarreko araudian ezarritako alderdien arabera, ingurumen-txosten estrategiko hau ematen du Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak (eskumena duen organoa da, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuaren arabera). Txosten horretan, Planak ingurumenean ondorio esanguratsuak izan ditzakeen edo ez aztertzen da, eta, beraz, ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren prozedura bete behar duen, edota, bestela, zer baldintza ezarri behar diren Plana garatzeko eta ingurumena behar bezala babesteko.

Hauek guztiak aztertu dira: 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; eta 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; eta aplikatzekoak diren gainerako arauak. Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Poblado, Salinas eta Andonaegi bizitegirako hiri-eremuen leheneratze, birgaitze eta kudeaketan esku hartzeko Hiri Antolamenduko Plan Bereziari buruzko ingurumen-txosten estrategikoa egitea, era honetan:

A) Planaren deskribapena: helburuak eta jarduketak.

Plana Pasaiaiko udalerriko bizitegirako hiru hiri-eremuren (Andonaegi, Poblado eta Salinas) berroneratze, birgaitze eta kudeaketan esku hartzeko egiten da. Ezaugarri eta behar berdinak edo antzekoak dituen multzo bateratua osatzen duten hiru auzo dira.

Hiru auzo horiek hiri-ingurunean erabat integratuta daude, eta udalerriko hirigintza-plangintzak finkatu ditu.

Planaren xedea da dokumentu bat egitea aipatutako hiru bizitegi-eremu horien berroneratze, birgaitze eta kudeaketan esku hartzeko, hiri-ingurunearen eta ondare eraikiaren irisgarritasun-egoera hobetzeko, eta, inguratzailean eta instalazioetan esku hartuta, eraikinen energia-eraginkortasuna hobetzeko oinarriak ezartzeko.

Planak plangintza orokorreko zehaztapenak (Pasaiaiko Udal Plangintzako Arau Subsidiarioak) betetzen ditu; hori horrela, eremu publikoen antolamendua jarduketa puntualekin osatzen du, hiri-irudia hobetzeko eta biztanleek egoki erabili eta gozatu dezaten, eta lehendik dagoen hiri-morfologia sendotzen du.

Esku hartzeko funtsezko irizpidea (irizpide berak hiru auzoetan), honako hauek dira:

- Hiri-ingurunearen irisgarritasuna.
- Eraikinen irisgarritasuna, homogeneotasun-irizpideekin, kasu guztietan auzo bakoitzaren hiri-morfologia bereizgarriari eutsita.

– Energia-eraginkortasuna eta instalazioen antolamendua, homogeneousun-irizpideekin, auzo bakoitzaren ezaugarri tipologikoei eutsita.

– Eremu publikoak edo erabilera publikoa dutenak berrurbanizatzea: ibilgailuentzako bideak eta oinezkoentzako espazioak berrantolatzea.

Andonaegi auzoari dagokionez zehazki, helburu hau ere lortu nahi da:

– Andonaegiko ur-biltegi zaharrea egin beharreko antolamendua garatzen laguntzea. Udalak definitu eta zehaztu beharreko proiektu independente bat izango du.

Eremu publiko eta pribatuen mugak egokituko dira, eremu horiek urbanizatu eta/edo berrurbanizatuko dira, eta ondare eraikiaren eta jarduketa zehatzen jarduketa orokorren babes-maila zehaztuko da.

Jarraian, eremu bakoitzerako proposamenak zehaztuko ditugu:

Andoanegi: Plan Bereziak jabari eta erabilera publikoko eremu osoaren berrurbanizazioa finkatzen du, baita 30 bloketan banatutako 300 etxebizitzak birgaitzea ere (erabilera publikoko eta pribatuko eremuak berrurbanizatzea).

Poblado: Planak 212 etxebizitza-unitateak birgaitzea eta eremu publikoen urbanizazioa osatzea zehazten du, baita etxadien barruko erabilera publikoko eta jabari pribatuko beste batzuk ere. Igo-gailuen instalazioa barne hartzen du.

Salinas: Plan Bereziak 96 etxebizitza-unitateak birgaitzea eta espazio publikoen urbanizazioa amaitzea proposatzen du, bai eta Salinas kaleko 3, 5 eta 7 zenbakietako atzeko terraza amaitzea ere. Igo-gailuen instalazioa barne hartzen du.

B) Proposatutako planaren ezaugarriak aztertu ondoren, eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 31. artikuluekin bat etorriz, lege horren V. eranskinean ezarritako irizpideak aztertu dira; hain zuzen ere, planak ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta behar duen ala ez zehazteko.

1.– Planaren ezaugarriak, bereziki hauek kontuan hartuta:

a) Planak zer neurritan ezartzen duen proiektuetarako esparrua. Planak ez du hirigintza-parametrorik aldatzen; bizitegirako hiri-eremuen berronertze, birgaitze eta kudeaketan esku hartzea da helburua. Aurkeztutako dokumentazioa ikusita, planak ez du indarrean dagoen hirigintzako araudia aldatzen baldintzak txertatzeko (kokapenari, ezaugarriari, neurriari edo funtzionamenduari dagokienez, besteak beste) ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko legerian zerrendatutako kategoriaren batekoak diren proiektu berriak etorkizunean baimentzeko.

b) Planak zenbateraino eragiten duen beste plan edo programa batzuetan, bai eta hierarkizatuta daudenetan ere: Plana bateragarria da maila handiagoko lurralde-, sektore- eta hirigintza-planekin.

c) Plana egokia den edo ez ingurumen-kontsiderazioak integartzeko, bereziki garapen jasangarria sustatzeko helburuarekin bat eginik. Planak egoera degradatuan dagoen lurzoru urbanizatu bat hartzeko eta optimizatzeke aukera eman eta/edo laguntzen du; hala, ez dira hartuko artifizialdu gabe dauden beste lurzoru batzuk. Gainera, plan honen garapenak eraikinetan energia aurrezten lagunduko duten elementuak ezartzea ahalbidetu dezake, eraikuntza jasangarriago bateranzko bidean.

d) Planarekin lotutako ingurumen-arazo esanguratsuak. Ez da hauteman plana gauzatzearen ondoriozko ingurumen-arazo adierazgarriarik, betiere, besteak beste, segurtasunari eta osasunari, ingurumenari, urei eta uholde-arriskuen prebentzioari, hondakinen kudeaketari, natura-ondareari, paisaiari eta kutsadura akustikoari dagokienez indarrean dagoen araudia betez gauzatzen badira ukitutako eremuarekin lotutako esku-hartze eta jarduerak.

e) Era berean, Plana egokitzen jotzen da Europako nahiz Espainiako ingurumen-arloko legedia txertatzeko.

2.– Ondorioen eta eragina jasan lezakeen eremuaren ezaugarriak.

Planaren eremua, erabat urbanizatua, Andonaegi, Poblado eta Salinas auzoak dira, XX. mendearen bigarren erdian eraikitako bizitegi-eremuak; Pasaiako herriaren hiri-ingurunean erabat integratuta daude gaur egun, eta udalerrian indarrean dagoen plangintzak finkatuta. Eremu horiek elkarrengandik oso hurbil daude, Trintxerpe eta Pasai San Pedro inguruetan, Ulia mendiaren magalean, Pasaiako portuaren ekialdean.

Andonaegiko eremuak 24.000 m²-ko azalera du; Poblado, 16.800 m²koa, eta Salinasek, 6.200 m²-ko azalera.

Eremuan ez dago ur-ibilgurik.

Eremuetan Interes Hidrogeologikoko Kokalekuetan jasotako lurra daude zatiren batean. Flysch tertziarioko faziak dira, Donostiako unitate tektonikokoak eta iragazkortasun handikoak.

Eremuen izaera antropizatua dela eta, dagoen landaredia lorategi-eremuetara mugatzen da; batez ere, landare belarkarak eta zuhaixkak dira, apaingarri hutsak, eta guztiek balio ekologiko txikia dute. Ez da identifikatu Batasunaren intereseko habitatik edo mehatxatutako flora-espezierik.

Faunari dagokionez, nabarmendu behar da eremua kalakaren (*Alosa alosa*) eta ferra-saguzar mediterraneoaren (*Rhinolophus euryale*) interes bereziko eremua (IBE) dela, bai eta Schreiber muskerraren (*Lacerta schreiberi*) lehentasunezko banaketa-eremua (LBN) ere. Espezie horiek «bakan», «galzorian» eta «interes bereziko» sailkatuta daude Basoko eta Itsasoko Fauna eta Flora Espezie Mehatxatuen Euskadiko Katalogoan. Ez du ematen espezie horiek jarduketa-eremuetan daudenik, batez ere eremuan ez dagoelako aipatutako fauna-espezieak har ditzakeen landaredi naturalik.

Eremua ez dator bat indarreko legerian jasotako babes-figurekin. Ez da, ezta ere, Korridore Ekologikoen Sarearen proiektuaren egiturazko elementuetako bat, eta ez da EAEko azpiegitura berdea egituratzen duen elementuetako bat.

Ingurumen-arriskuei dagokienez, eremuko lurzoru gehienak ez direla higagarriak adierazi behar da. Ur-biltegi zaharreko lurra baino ez dira. Ez da eremu higagarriarik identifikatu.

Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbertuarioko lurzati bat dago Andonaegiko eremuan, 20064-00098 lurzati zehazki. Gutxi gorabehera 230 m²-ko azalera duen industria-lurzati bat da.

EAEko uholde-arriskuaren kartografiak (Uraren Euskal Agentzia) uholde-eremuak aurreikusten ditu. Kartografia horrek lehentasunezko fluxu-eremua eta uholde-eremuak mugatzen ditu hainbat errepikatze-denboratarako (10, 100 eta 500 urte).

Haren kokapen topografikoa eta eremuan ibai-ibilgurik ez dagoela aintzat hartuta, eremu horietan ez dago urak har dezakeen lursailik.

Euskal Autonomia Erkidegoko akuiferoen kutsadurarekiko urratze-arriskuaren maparen arabera, eremua kutsadurarekiko urratze-arrisku oso txikia edo txikia duten akuiferoen gainean dago, Salinaseko ipar-ekialdeko 90 m²-ko azalera izan ezik, kutsadurarekiko urratze-arrisku ertaina baitu.

Eremuaren hegoaldeetik doan trenbideak salgai arriskutsuen garraioari lotutako arrisku ertaina du, eta trenbide horren 600 m-ko afektazio-bandan jasota daude eremuak.

Ez dago aipatzeko moduko beste arriskurik.

Zarata: Pasaiaiko hots-foku garrantzitsuenak hauek dira: bide-trafikoa –batez ere GI-2640 (Nafarroa hiribidea), GI-636, GI-20 eta GI-3440 foru-errepideak–, ADIF eta ETS lineen tren-zirkulazioa, bai eta portuan kokatutako industria ere. Gauez, ez dira betetzen kalitate akustikoko helburuak (KAH) aztergai dugun eremurako.

Kulturaren ikuspegitik, nabarmendu behar da ezen, espedientean dauden txostenen arabera, Planaren xede diren hiri-eremuak ez daudela Euskal Kultura Ondarearen EAeko Erregistroan sartuta, eta, beren eremuan, ez dutela babes bereziko edo ertaineko kultura-ondasun izendatutako elementurik. Hala ere, «Poblado» izeneko eremua, zehazki, Euskal Kultura Ondarearen EAeko Zentroko Ondare Arkitektonikoaren inbentarioan «arrantzale-auzo» gisa identifikatuta dago. Bertan, babes ertaineko kultura-ondasun deklaratzeari dakarten ondare-balioak ikusten dira, baina oraingoz ez da babes-espedienterik ireki. Era berean, «Salinas» eremua inbentario berean jasota dago, udal-babesa izatea proposatuta, tokiko mailan duen interesagatik.

Batez ere honako jarduera hauek izan dezakete inpaktuaren bat:

- Lehendik dauden espaloiak eta bideak berrurbanizatzeko obrak, baita lehengo ur-biltegia ere.
- Eskailera berriak, arrapalak eta igogailu publiko berriak eta irisgarritasuna hobetzeko elementuak (eskudelak) egitea.
- Eraikinetako atariak eta sarbideak egokitzeko obrak.
- Blokeetan igogailu berriak jartzea.

3.– Ebazpen honetan, honako neurri babesle eta zuzentzaile hauek ezartzen dira, Pasaiaiko Poblado, Salinas eta Andonaegi bizitegirako hiri-eremuen leheneratze, birgaitze eta kudeaketan esku hartzeko Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egin beharrik egon ez dadin, betiere ezarritako neurri babesle eta zuzentzaileak gehitzen bazaizkio.

Neurri babesle eta zuzentzaileak honako hauen arabera gauzatuko dira: indarreko araudiaren arabera, ingurumen-txosten estrategikoa egiteko emandako ebazpenean adierazitako neurrien arabera, eta, aurrekoaren aurkakoa ez den orotan, Ingurumen Agiri Estrategikoan eta Planean bertan jasotakoaren arabera, planaren ondoriozko proiektua ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren eremuan badago aplikatu beharrekoak alde batera utzi gabe. Edonola ere, honako neurri hauek hartuko dira:

- Lurzoruaren kalitatea aurreikusitako erabilerekin bateragarria dela bermatzeko neurriak.

Planaren eremuko lurzati bat lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioan dago (20064-00098 kodea). Horrenbestez, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 23. artikulua xedatzen duena betez, arau horretan adierazitako egoeraren bat gertatzen bada, ingurumen-organismoak ebazpen bidez adierazi beharko du lurzorua kalitatea, aipatutako ekainaren 25eko 4/2015 Legeak araututako prozedurari jarraikiz. Obrek dirauten bitartean kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak antzemanaz gero, aipatutako 4/2015 Legearen xedatutakoa beteko da.

– Kutsadura akustikoari dagozkion neurriak.

Etxebizitzak birgaitzeko jarduketek 213/2012 Dekretuan ezarritako neurriak har ditzaten azterzea gomendagarria da, etorkizuneko bizitegi-garapenetan, fatxadako isolamenduari eta eraikinen barruko maila akustikoei dagokienez, bai eta zaratatik babesteko oinarrizko eskakizunak ere – Eraikuntzaren Kode Teknikoaren (EKT) Zarataren aurkako Babeserako Oinarrizko Dokumentuan (DB-HR) zehaztuta–.

– Kultura-ondarea babesteko neurriak.

Eraikinen irisgarritasuna eta energia-eraginkortasuna hobetzeko jarduerak irizpide hauetan oinarriztea gomendatzen da:

- Igogailuak, ahal bada, eraikinen barrualdean jartzea, eta estalkian azaleratzen diren bolumenak minimizatzea.

- Konposizio-elementu bereizgarriak babestea, hala nola harlangaitzezko zokaloak, balkoiak, inpostak, fatxaden kolorea eta abarrak.

- Hiri-morfologia, eta, bereziki, blokeetatik hurbil dauden inguruneetako eraikuntzarik gabeko espazioaren izaera zaintzea.

– Beste neurri babesle eta zuzentzaile batzuk.

Ingurumen-dokumentuan proposatutako neurri babesleez eta zuzentzaileez gain (honako hauekin lotuta: lurzorua eta uren babesa, lurren eta soberakinen kudeaketa, hondakinen sorkuntza eta kudeaketa, induskatutako lurzoruen kontrola, airearen kalitatearen eta kalitate akustikoaren babesa), neurri hauek hartuko dira:

- Obrako langileek erabili behar duten jardunbide egokien gidaliburuak gai hauekin zerikusia duten alderdiak bilduko ditu, gutxienez: lanaldiak, makineria, aldi baterako desbideratzeak, isurketak saihestea, ahalik eta hauts eta soinu gutxien sortzea, herritarren lasaitasunean eragin negatiboa izan dezaketen jardunak minimizatzea, hondakinak kudeatzea eta abar.

- Hondakinak sortzea eta kudeatzea: obretan eta garbiketa-kanpainan sortutako hondakinak kudeatzeko, Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legean eta arau espezifikoetan xedatutakoa beteko da.

- Landareztatze- eta lorategi-lanetan ez dira inola ere erabiliko inbaditzaileak izan daitezkeen espezie aloktonoak; esaterako, *Fallopia japonica*, *Robinia pseudoacacia* eta *Cortaderia selloana*. Espezie horiek lur-mugimenduen bidez hedatzea ekiditeko behar diren neurriak hartuko dira; betelanean, landareztatze-lanetan eta urbanizazioko lorategi-lanetan erabiliko diren mailegu-lurren eta landare-lurren jatorria eta osaera kontrolatu beharko da.

– Eraikingintza eta eraikuntza jasangarriagoetarako behar diren ezaugarriei dagokienez, etxebizitzaren eraikuntza jasangarriaren gidan jasotako neurriak eta ingurumen-jardunbide egokiak erabiliko dira, eraikinen energia-aurrezpena eta efizientzia bultzatzeko eta energia berriztagarriak sustatzeko. Neurri horiek, gutxienez, arlo hauetan izan beharko dute eragina:

- Materialak. Lehengai berriztaezinen kontsumoa murriztea.

- Energia. Berriztagarriak ez diren iturrien bidez sortzen den energiaren kontsumoa eta/edo sorkuntza murriztea.

- Edateko ura. Edateko uraren kontsumoa murriztea.

- Ur grisak. Ur gris gutxiago sortzea.
- Atmosfera. Gas-, hauts-, bero- eta argi-emisioak murriztea.
- Barne-kalitatea. Barruko airearen kalitatea, erosotasuna eta osasuna hobetzea.

Bigarrena.– Xedatzea ezen, ingurumen-txosten estrategiko honetan ezarritakoaren arabera, eta, betiere, ebazpen honetan ezarritako babes- eta zuzenketa-neurriak hartzen badira, baita sustatzaileak proposatutakoak ere, aurrekoen aurkakoak ez badira, ez dela aurreikusten Pasaiako Poblado, Salinas eta Andonaegi bizitegirako hiri-eremuen leheneratze, birgaitze eta kudeaketan esku hartzeko Hiri Antolamenduko Plan Bereziak ondorio kaltegarri nabarmenik izango duenik ingurumenean, eta, beraz, ez duela ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntik behar.

Hirugarrena.– Ebazpen honen edukia Pasaiako Udalari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Bosgarrena.– Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 31.4 artikulua ezarritakoaren arabera, honako ingurumen-txosten estrategiko honek indarraldia galduko du, eta berezko dituen ondoreak sortzeari utziko dio, behin Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta lau urteko gehieneko epean Pasaiako Poblado, Salinas eta Andonaegi bizitegirako hiri-eremuen leheneratze, birgaitze eta kudeaketan esku hartzeko Hiri Antolamenduko Plan Berezia onartzen ez bada. Kasu horretan, berriro hasi beharko da Planaren ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedura.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 2a.

Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria,
JAVIER AGIRRE ORCAJO.